

## **ARGAZKI LEHIAKETATEN ARAUAK**

**Urrotz Hiria I. Argazki Lehiaketa** antolatzen da Urrotz Hiria ezagutzera emateko eta jarduera artistikoak bultzatzeko. Honakoak dira lehiaketaren **OINARRIAK**:

1. 16 urte gorakoek parte hartu ahal izago dute. Parte hartzaile bakoitzak gehienez ere bi argazki aurkeztu ahalko ditu, baina bakoitza modalitate ezberdin batera.
2. Bi modalitate ezarri dira:
  - a. **Orokorra**: Lehiaketaren lehen saria jasoko du, eta parte hartu nahi duen ororentzat zabalik dago.
  - b. **Sari Herrikoia**: mugatuta egonen da Urrotzen erroldatuta daudenei.
3. Argazkien gaia “Urrotz Hiria ezagutuz” izanen da: paisajea, hirigintza, ondarea, ohiturak, jaiak, jendea... Argazkiak originalak izango dira, argitaratu gabeak eta beste lehiaketaren batean saririk jaso ez dutenak.
4. Zuri-beltzean nahiz koloretan aurkeztu ahal dira. Argazki muntaiak ez dira onartuko. Argazkiak jarritako epean egindakoak izan beharko dira. Argazkien pisua 2 eta 15 MB izan beharko da.
5. Parte hartzeko e-mail honerata bidali behar dira argazkiak: [descubre.urroz@urroz-villa.es](mailto:descubre.urroz@urroz-villa.es)

E-mail honetan hurrengo datuak jarri behar dira:

- a. Argazkiaren izenburua mezuaren “gaian” (argazki bakoitzeko mezu bakarra bidaliko da) zein erantsitako argazkiko “izenean” agertuko da (deskargatzerakoan argazkiak izen horrekin mantenduko da).
- b. Izen eta abizenak
- c. Jaiotze data
- d. Helbidea eta harremanetarako telefono zenbakia
- e. Nortasun agiria
- f. Argazkia atera zeneko data
- g. Aurkezten den modalitatea (Orokorra edo Herrikoia)

6. Urrotz-Hiriko udalak jasotako mezuari erantzunen dio.
7. Epaimahaia Urrotzeko elkarte kulturalak eta gaian adituak diren pertsona batzuek osatuko dute. Epaimahaiak argazkiak aurkezteko epea bukatzen denetik hilabeteko epea izanen du bere epaia ezagutarazteko. Erabaki hau apelaezina izanen da eta ohiko bideetatik komunikatuko da. Epaimahai modalitate bakoitzeko 15 argazki osatuko dute, horietatik bakarra izanen da saritua.
8. Sariak honakoak izango dira:
  - a. Modalitate orokorra: 300€. Epaimahaiak aukeratuko du argazki saritua
  - b. Modalitate herrikoia: 150€ epaimahaiak aukeratutako 15 argazkien artean herritarrek gehien bozkatzen duten argazkiarentzako. Horretarako, hamabost argazki horiek epaimahaiak epaia eman eta ondorengo bi egunetan zehar erakutsiko dira herriko kultur aretoan, beharrezko publizitatea egingo zaiolarik. Bozkatzen dutenek izen abizenak eta NA eman beharko dute eta aukeraturiko argazkia zehaztu.

Epaimahaiak bi sarietako edozein eman gabe utzi ahal izango ditu.

Honako sariak PFEZ-ren araudiaren arabera atxikipena izanen dute.

9. Saria jasotzen duten argazkien jabetza Urrotz-Hiriko Udalarena izanen da. Horrek behar adinako erreprodukzio egin ahalko ditu, eta hedatu ahalko ditu edozein propaganda bide erabiliz. Kasu horretan, egileak ezingo du erreklamaziorik egin ezta eskubiderik aldarrikatu.
10. Urrotz-Hiriko Udalak erakusketa bat edo edozein egitasmo egin ahalko du aurkeztutako lanekin, eta, kasu horretan, adieraziko du nortzuk diren egileak. Egileak ezingo dute eskubiderik aldarrikatu.
11. Lehiaketan parte hartzen duenaren erantzukizuna da aurkeztutako lanek hirugarren pertsonen aldeko eskubiderik ez izatea, hala nola, irudi eskubideengatik izaten ahal den edozein erreklamazio.
12. Argazkiak lehiaketan aurkezteak oinarri hauek guztiak eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar. Oinarriak aldatzen ahal dira; kasu horretan, antolatzaileek abisatuko dute.
13. Urrotz-Hiriko Udalak erabakiko du oinarrietan aurrakusten ez direnei buruz.